

# Lamiñak

Lamiaren zelaian lamiak bizi ei ziran. Baita, itsasondoko Errosape deritxon zubiondoko errekan bere. Lamiak oso emakume ederrak ziran. Ule gorrizko adats ugaria euken buruan. Eta goizeko ordu ozkirrietan, euren kobazulotik urten, eta eguzkitan egoten ziran.

An, alkar orrazketan egozan beti, urrezko orrazi luzeagaz. Diz-diz egian eguzkitara areen ule bellegiak. Diz-diz, areen eskuetako urrezko orraziak.

Urinzaleak ziran oso; eta aren billa ibilli oi ziran inguruko baserri ta artzain txaboletan. Ba-zan Errosape inguruan baserri bat, Kortazar eritxona. Peru ta Mari, senar-emazteak bizi ziran berton.

Artzaiña zan Peru; eta berau Sollubeko mendian arditan ebillen bitartean, bakar-bakarrik geratzen zan aren emazte Mari etxean, inguruko ortua lantzen egun argitan, eta goruetan illuntzetan.

Garrantzi andia emoten eutson atorrari. Gabon-egunean iruten eban atorrentzako aria. Gabon-eguneko ariaz egindako atorrak lamiengandik burua gordetzeko doai berezia ei dabe-ta.

Orrela iruten egoan illuntze batean, lamiña bat sartu yakon etxeko kezulotik; eta onelan esan eutson: "Urin-prox, urin-prox" (Morokil eta uriñez nasturiko zerbait ei da urin-prox ori).

Marik, bere aulkitik altzau, arasako urin lapikoa artu, alboko ore maiera eroan; eta arin eta laster ondo gerta eutson lamiña eskaleari urin-prox gozo ori. Eta urrengo arratsean be bardin: lamiña ori sukaldeko kezulotik jatsi, eta "Urin-prox, urin-prox" eske. Eta orrela jarraitu eban, egunetan ta egunetan.

Alango batean, Marik esan eutson bere senar Peruri: "Alboko lamiñak

etxeko urin guztia jaten ari daustek".

—Ago, ago esan eutson senarrak—; ni neu jarriko non iruten. Neu konponduko non lamiña esku luz orregaz".

Bere emazte Mariren gona luzeak jantzi, eta iruten asi zan gure Peru. Betiko lez, arrats aretan be, lamiña kezulotik bera jatsi zan. Eta bertoko iruleak ez ebala, beste arratsaldetan lez, iruten oaurtuz, esan eutson:

—Beste arratsaldetan, firrin-firrin jardun oi intzan; gaur farran-farran, jardun az.

—Bart, liñua niñan, gaur amukua.

—Ik zer don izena,

—Nik..., Peru.

—Gizona... eta iruten?

—Bai..., nire txanda don gaur.

—Peru, Perutxu..., adi-adi: Urin-prox, urin-prox!

Orduan, gizonezko iruleak, lapikoko uriña artu, zartagiñan ipiñi, ta sutegiko txinarretan jarri eban berotzen. Eta txir-txir irakiten asi zanean, batbatean sutarik atara, ta begitartera jaurti eutson aurreko lamiñari.

Orru ta ulu joan zan lamiña sukaldeko kezulotik abian; eta gaueko ilunpetan galdu zan, Errosapeko bidean.

Urrengo goizean, ba-yoian gure Peru betiko lez Sollubeko bere arditara; eta Errosapeko lamiñak ikusi ebanean, diardaka asi yakon Lamiarenago beste lamiña lagunari:

—A..., Lamiarangoa!

—Zer donan, Errosapekoa?

—Or yoian orreri bota eiona laki-rioa.

—Zelan botako yotsañat lakirioa? Gabon-ariaz egiña yaroena orrek soiñekoa!